

393/2022 EBAZPENA, urriaren 25ekoa, Uribeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Uribeko Erakunde Sanitario Integratuko Medikuntza Fisikoko eta Errehabilitazioko Atal Sanitarioko Burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzen den.

AURREKARIAK

Uribeko ESiko zuzendari-gerentearen martxoaren 24ko 103/2022 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Uribeko ESiko Medikuntza Fisikoko eta Errehabilitazioko Atal Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2022ko uztailaren 13ko EHAA 135. zk. eta 2022ko uztailaren 23ko BOE 176 zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du. Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2022ko abuztuaren 16an amaitu zen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Uribeko ESiko zuzendari-gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko, eta hamar egun balioduneko epea emango du, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak bide administratibotik aurkezteko.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betéz,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Uribeko ESiko Medikuntza Fisikoko eta Errehabilitazioko Atal Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzea. (I. eranskina).

Bigarrena.– Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Uribeko ESiko Zuzendaritza Gerentziari, hamar egun balioduneko epean, Ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Urduliz, 2022ko urriaren 25a

Uribeko ESiko zuzendari-gerentea,
Eskuordetzaz sinatua (170/2021 Ebazpena, martxoaren 30ekoa)

Langileen zuzendaria,

IANIRE LAMIKIZ MOREIRA.

I. ERANSKINA

**URIBEKO ESI-KO MEDIKUNTZA FISIKOKO ETA ERREHABILITAZIOKO ATAL
SANITARIOKO BURU LANPOSTUA**

Onartuen behin-behineko zerrenda:

- JUAN IGNACIO REOYO DIEZ

Baztertuak:

- BAT ERE EZ

Baztertzeko arrazoia:

- 1- Ez da langile finkoa eskatutako kategorian.
- 2- Ez dago jarduneko zerbitzuan eskainitako lanpostuaren lanbide-talde bereko kategorian.
- 3- Ez du titulazioari buruzko eskakizuna betetzen.
- 4- Ez du lan-esperientziari buruzko eskakizuna betetzen.
- 5- Eskabidea epez kanpo aurkeztu da.
- 6- Bestelakoak.